

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Ostirala, 2012ko martxoaren 9a. IX. urtea. 2.376. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

**Fermin Montilla** Tolosa&Co elkarteko lehendakaria

## «Tolosa merkataritza gune oso garrantzitsua da eta izan da»

Tolosako merkataritza elkarteko lehendakari berria da Fermin Montilla; lana ez zaio arrotza egingo, 2011n bertako diruzaina izan baitzen

Herrian Tolosaldeari zerbitzua ematen dioten saltoki asko daudela dio, eta baita garai zail hauek aprobetxatu behar dituztela ere **o3**

**Antzezlanak, kontzertuak eta gehiago asteburuan, Tolosan**

Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira hainbat ekitaldi antolatatu dituzte; Mulamboren brasildar festa ere izango da bihar **o4**



Jende ugari gerturatu zen herenegun, kultur etxeko areto nagusira. E.MAIZ

## Herrirak dio «herritarren konpromisotik mamituko» dela

Sortu berri den mugimenduak jendaurreko aurkezpena egin du Tolosako kultur etxean; «izaera irekia eta parte hartzailea» duela esan du, eta Tolosaldeko hogeita bi presoak izan ditu gogoan **o6**

## Atez ateko sistema ezartzea onartu dute Villabonan

Udalbatzak Zizurkil eta gero hartu du erabakia; Bilduren 9 zinegotziek alde bozkatu dute, eta EAJko hiruek eta PSE-EEren bakarrak, kontra **o7**

## Voith-Gorostidi proiektua berriro defendatu du EAJK

Bildu «joko zikina» egiten ari dela, eta gazteei «etxebizitza duina» edukitzeko aukera eman dietela esan du Tolosako alderdi jeltzaleak **o2**

## Erosleentzat diru laguntzak izango dira Tolosako Biga Enkantean

Frisoi, pirenaiiko, limusin eta blonda arrazako bigak enkantean jarriko dituzte, bihar

**I. Garcia Landa**

Abeltzaintzaren inguruan dabilzanak elkartuko dira, bihar, Tolosako Biga Enkantean. 11:00etan hasiko da, ferialekuan, eta erosleentzako diru laguntzak izango dira. Lau arrazatako bigak izango dira enkantean. Alde batetik, ernai dauden frisoiak, eta bestetik, zortzi hilabetetik gorako pirenaiiko, limusin eta blondak.

Diru laguntzei dagokionez, frisoari arrazakoentzat 210 euro izan-



Tolosako ferialekuan egindako biga enkante bateko irudia. AINHOA ALTUNA

go dira. Haragitakoentzat hiru mailatan banatu dituzte: 8-12 hilabete bitartekoentzat, 150 euro; 12-18 hilabete bitartekoentzat, 180 euro; eta 18 hilabetetik gorakoentz-

tzat, 210 euro. Lau arrazatako elkarteek antolatu dute enkantea, Tolosako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin.



Tolosako EAJko kideek agerraldia egin zuten, atzo, Batzokian. I.G.L

## Bilduk leporatu dion ustelkeria gezurra dela esan du EAJk

Voith-Gorostidi proiektuarekin «leporaino konprometituta» eta «harro» dagoela dio

**Imanol Garcia Landa**

Tolosako EAJk aurreko astean Tolosako Bilduk esandakoari erantzun dio agerraldi batean. EAJk zehaztu duenez, «Bilduk EAJri leporatzen dio ustelkeripean dagoela. Hori gezurra da, eta hori pentsatzen duenak eta frogak dituenak, epaitegiatar jo behar du zalantzarik gabe». Bilduri «joko zikina» egitea leporatu dio EAJk, «egoerak gainditu egiten duela ezkutatzeko, besteei zikinkeria leporatzen» ari dela dio. «EAJk garbi jokatu du proiektu honen garapenean eta ezin zaio leporatu hedabideen bidez ustelkeriak jota dagoela, hautagaien edo alderdiaren izena zikinduz».

Voith-Gorostidiko eremuarekin «leporaino konprometituta» dagoela esan du EAJk. «Beraz izan da tolosar gazteei aukera eman diena etxebizitza duina eskura izateko», gaineratu du. Ere mu horretan %60tik gora etxebizitzak babestuak, 470 etxebizitza inguru, direla esan du, eta Tolo-

san dagoen «etxebizitza premiari neurri batean aurre egin» diola zehaztu du alderdi jeltzaleak. «Ez da tamaina honetako proiekturik garatu urte askotan, ez Tolosan eta ezta tamaina bereko Gipuzkoako udalerriren batean ere. Beraz, burutu den proiektu honetaz arro gaude», nabarmendu du. Voith-Gorostidi eremuan zeuden enpresek «beste leku egokiago batetara, Apatta Errekara, joateko aukera» izan dutela esan du, «azpiegiturak hobetuz», eta horrek berarekin batera «inguruen erregenerazioa» ekarri duela gaineratu du.

Horrez gain, EAJk EA aurreko bi legealditan gobernu batzordean egon dela nabarmendu du eta Tolosako Hirigintzako Plan Orokorriari baiezkota eman ziola bere prozedura osoan. «Bertan jasotzen da gaur egun, Voith-Gorostidi eremuak duen etxebizitza dentsitatea eta Larramendi kalearen lurperatzea. Gaur egun dirudienez ez du horrela ikusten», esan du EAJk. Alderdi jeltzalearen iritziz, «honek adierazten du bere iritzi politikoa koiuntura politikoren arabera aldatzen dela eta gaur egun ezker abertzaleak iren-tsi egin duela bere berezko nortasuna galduz».

EAJk gaineratu duenez, «ezker abertzaleak hartu duen jarrerarekin bere ezintasuna estali nahi du». EAJk adierazi du «tolosarron alde» lanean jarraituko dela «etxebizitza plana garatzen, etxebizitza babestua eraikitze-ko bideak proposatzen eta ezin dutenentzat alokairuzko etxebizitzaren eskaintza handitzeko proposamenak egiten. Azken batean tolosarren ongizatea indartzen». EAJk esan duenez, ez dira «deskalkifikatuz jarraituko» eta oposizioa egingo dute «proposamenak» luzatuz.

## Kilometro 0 ekimenaren beste saio batean, berdela eta Zerkausiko produktuak batera

Tolosako Fronton jateko Roberto Ruiz sukaldariak 40 kilo berdel prestatuko ditu Zerkausian

**I. Garcia Landa**

Martxan da berriro ere Tolosako Azokak + Kilometro 0 ekimena. Hala, hainbat sukaldari hurbilduko dira urteko sasoi ezberdinetan, Tolosako azoketan garaian garaiko produktuak erosi, eta herritarren aurrean mokadu goxo bat prestatzeko. Hala ere, oraingo honetan ez dute Zerkausiko garaiko produktuak bakarrik erabiliko. Produktu horiei laguntzeko berdela izango dute. Berdelaren kanpaina itxear den honetan, Getariako Arrantzaleen Kofradiak arrain honi Tolosan bere agurra

egitea pentsatu dute. Saio horretan, larunbateroko merkatuan garaikoak diren barazkiak erabiliko dituzte laguntzeko.

Hori horrela, 40 kilo berdel prestatuko ditu bihar Fronton jateko Roberto Ruiz sukaldariak Zerkausian. Goizean goiz hasiko da lanean. Aurrean, Zerkausitik itzuli bat emango du eta berdelari laguntzeko behar dituen osagaiak erosiko ditu. Ondoren, herritarren aurrean, Zerkausian kalean maneatuko ditu eta azken emaitza herritarren artean banatu 11:30ak inguruan. Berdela eskabetez eran Zerkausiko barazkiekin izango da aurten dastatuko den lehen plater berezia.

### Kilometro 0-ren filosofia

Kilometro 0 hitza erabili ohi da menuak prestatzeko gertuko produktuak edota ekoizlearengandik zuzenean jasotako produk-



Roberto Ruiz. REBEKA CALVO

tuak erabiltzen direnean. 2009ko apirilaren jarri zuten martxan egitasmoa Tolosan, Slow Food mugimenduarekin ere bat eginaz.

Besteak beste, Tolosan larunbatero egiten diren azokak indartzea du xede Kilometro 0-k. Tolosako Udaletik azaldu dutenez, «behin eta berriz baieztatu ahal izan den bezala, Tolosa plaza egokia da ekoizlearengandik zuzenean erositako produktua lantzeko, nahiz bertako eta garaiko produktuez gozatzeko».

## Iragarki laburrak

### ALOKAGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharreen, egoera onean dagoen etxebizitza alokatzen da; igogailua dauka eta gela guztiek kanpoaldera ematen dute. Oso argitsua da. Prezio onean eskaintzen da. Interesatuek,

deitu 646 297485 telefono zenbakira.

### SALGAI

■ **Ahuntz nanoak.** Ahuntz nanoak saltzen ditut. Interesatuek, deitu 650 865626 telefono zenbakira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Irudia** ◊ Tolosa**EMAKUMEEN ALDARRIKAPENAK, PLAZARA**

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunean hainbat ekitaldi egin zituzten, atzo. Tolosan, esaterako, *Emakumeok plazara* ekimenaren barruan, Zerkausian mural pintaketa egin zuten (ezkerreko irudian). Horren ondoren, ekitaldi ugari izan ziren: bakarriketakak, abeslariak, akrobaziak... Bestalde, Laskorain ikastolan, besteak beste,

Laskolilatoia egin zuten. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko emakumezko irakasle nahiz ikasleek, kros txiki bat egin zuten ikastolaren inguruan (eskuineko irudian). Horrez gain, Tolosako Udalak jai eguna egin zuen atzo, eta gaur ere halaxe egingo du; beraz, udal bulegoak itxita izango dira. LURKIZU

**Fermin Montilla** ◊ Tolosa&Co elkarteko lehendakaria**«Garai zail hauek prestakuntzarako eta eskaintza hobetzeko erabili behar ditugu»****Imanol Garcia Landa** Tolosa

Fermin Montilla (Tolosa, 1958) Tolosa&Co merkatarien elkarteko lehendakaria izendatu dute, urtarillaren amaieran eginiko batzar orokorrean. Aurreko urtean diruzaina izan zen.

**Zer suposatzen du zuretzat lehendakari karguak?**

Tolosaren gizarte sarean parte hartzeko aukera, eta era berean, Tolosako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuekin kolaboratu ahal izatea, ez ikusle moduan bakarrik, baita egungo baldintzak hobetuz eta gure udalerrira bultzatuz, ahal dugun heinean.

**Lehendakari izan aurretik, elkarteko diruzaina izan zara. Aurretik ezagutzen zenuen, beraz, elkartearen jarduna.**

2011n diruzain bezala parte hartu dut elkartean, eta horrek Tolosa&Co-ren funtzionamendua ezagutzeko aukera eman dit, bai barrukoa eta bai kanpora begirakoa ere. Bestela ere, aurreko lehendakaria izan den Pedro Tolosaren erabateko babesa dut, eta bere laguntza eta ezagutza balio handikoak dira lehendakari gisa hasi dudana eta berri honetan.

**Zer helburu dituzue aurrera begira?**

Une honetan, helburuetako bat ostalaritza elkartean sartzea da. Proiektu globalagoi ekiteko hazi beharra daukagu. Bestalde, Visa proiektuari jarraipena eman behar diogu, aberastuz eta erosteko modu bezala bere erabilera bul-



I.G.L.

tzatuz, eta orokorrean Tolosako txartela bihurtuz. Horrez gain, badaude beste proiektu batzuk, udalarekin lantzen ari garenak, eta 2012an martxan jarriko direnak.

**Zergatik da garrantzitsua merkatarien elkarte bat izatea Tolosan?**

Egun bizi dugun atomizazio eta merkataritza guneen presentzia handiko testuinguruan, Tolosa&Co merkatarien eta profesionalen interesen aldeko plataforma bihurtzen da. Gainera, Tolosa&Co, gaurdanik merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen elkar-

tea, Tolosaren eta bere ingurunearen biziberritzearen alde lan egiten du, gure udalerrira interes gisa kontsolidatzeko, herritarrentzat atsegina eta bisitarien-tzat interesgarria izateko.

**Zer aldatu da, aurretik zeuden bi merkatarien elkarteak bateratu zirenetik?**

Alde Zaharra eta Igarondo elkarteak Tolosa&Co-n bateratzea prozesu naturala izan da, batera egoiteak indarra ematen duen garai batean, eta normaltasun osoz garatu da. Ordezkaritza zabalagoa izatea ahalbidetzen digu, proiektu

garrantzitsuei ekitea, proiektu ekimenetan elkarren artean ez zapaltzea... Azken finean, Tolosako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen alde modu globalizatuan lan egitea.

**Zer mezu emango zenioke herritarrei beren erosketak Tolosan egiteko?**

Tolosa oso gune garrantzitsua da eta izan da. Tradizio handiko merkataritza dugu; bizia, barietate handikoa, kalitatezkoa, eta bezeroari bideratuta. Tolosan saltoki ugari daude, eta ez diote Tolosari bakarrik ematen zerbitzua, gure inguruko jendeak ere bere erosketak Tolosan egin ohi ditu.

**Zer laguntza mota behar dituzue merkatariek?**

Garai zail hauek aprobetxatu behar ditugu prestakuntza egiteko, espezializatze eta gure eskaintza hobetzeko, eta modu horretara krisi honen beheraldi handiena gainditzeko. Tolosa&Co-k urtero ikastaro interesgarriak antolatzen ditu merkataritzarentzako, eta egun udalarekin lanean da zenbait proiektutan. Horien bidez ingurua hobetu nahi dugu eta udalerrira aire librean dagoen merkataritza gune handi bihurtzeko beharrezko baldintzak sortu nahi ditugu, eta baita bezeroarentzako abantailak izango dituen.

**Nolako izan da Gabonetako kanpaina? Eta beherapena?**

Bizi dugun garai zail hauen barruan, bi kanpainak espero bezala joan dira.

**↓ Kirola Tolosan****LARUNBATA****SASKIBALOA**

**09:00.** Infantil neskek, T. Montesku-Bera Bera.  
**10:30.** Inf. mutilak, T. Oria-Añorga; inf. mutilak T. Aldaba-Zubiri; kad. mutilak Triki T.-Aloña Mendi.  
**12:00.** Kad. neskek, Aralar-Marianistas.  
**18:00.** Senior mutilak, T. Orbela-Astigarraga.

**ARETO FUTBOLA**

**10:30.** Laskorain-English.  
**16:00.** 3. Laskorain-Elorri.  
**18:00.** 1. Laskorain-Debabarrena.

**ESKUBALOA**

**12:00.** Inf., Tolosa-Txingudi.  
**16:00.** Jun., Tolosa-Eibar.

**FUTBOLA**

**09:00.** 1. Kadete mutilak, Tolosa CF-Idiazabal.  
**10:30.** 1. Infantil mutilak, Tolosa CF-Idiazabal.  
**12:00.** Emakume seniorren Tolosa CF-Hondarribi.  
**15:30.** Preferente mutilak, Tolosa CF-Mariño.  
**16:30.** Berazubin, jub. Liga Nazionala, Tolosa CF-Romo.  
**17:30.** Ohorezko jun. mutilak, Tolosa CF-Mondragon.

**MAHAI TENISA**

**11:00.** Oargi-Atlético S.S.  
**16:00.** Usabal-Gure Talde.

**IGANDEA****ESKUBALOA**

**10:00.** Kad., Tolosa-Bidasoa.  
**12:00.** Aleb. Tolosa-Ereintza.

**SASKIBALOA**

**12:00.** Sen. neskek, T. Aralar-Zast.

**FUTBOLA**

**10:00.** Emakumeak inf., Tolosa C.F.-Ordizia; aleb. Tolosa C.F.-Urnieta.  
**10:45.** Jun. emakumeak, Tolosa CF-Oiartzun.

**Herriko festak antolatzeke bilera egingo dute asteartean****Erredakzioa** Anoeta

Anoeta herriko festak antolatzeke bilera izango da hilaren 13an, asteartea. 19:00etan hasiko dute bilera eta udaletxean egingo dute. Jai batzordeak parte hartzea bultzatu nahi du festen antolakuntzan, eta horregatik animatzen ditu herriko taldeak eta herritar oro bertan parte hartzea.

# 'Western'etatik brasildar doinueta joango da asteburua

Tolosako Musika Bandaren zuzendari berriak, bere lehen kontzertua zuzenduko du bihar arratsaldean

## Itzea Urkizu

Martxoko bigarren asteburuan kultura nagusi izango da Tolosan. Bai gaur eta bai bihar, Emakumearen Nazioarteko Eguna-ren harira antolatutako ekitaldiak izango dira, eta baita bestelakoak ere, heldu, gazte eta haurrentzat.

Tolosako Udalaren neguko kultur egitarauaren barruan, eta martxoaren 8ko aldarrikapenekin lotutako *AurrezAurre* egitasmoan, *Sin Balas* antzezlanak ikusgai izango da gaur, 20:30ean, Leidor aretoan. La Grotesqués antzerki taldeko Critina Gallego

eta Elena Lombao ariko dira taula gainean, *western* generoan oinarrituriko antzezlanarekin. Bide honetan, denboraz, diruaz, baloreaz, botereaz, laguntasunaz nahiz emakumeaz ariko zaizkie ikusleei, komedia buruargi, malenkoniatsu eta zentzugabean.

Las Grotesqués taldea 1998. urtean sortu zuten, Madrilgo Goi Mailako arte dramatikoen antzerki eskola batean, eta urte hartan bertan taularatu zuten beren lehen antzezlan. Arrakasta eta komunikabideen kritika onen zaparrada 2004ko ekainean iritsi zitzaizen, ordea, *En ocasiones veo armarios (leer susurrando)* izeneko lanarekin. Hainbat bira egin zituzten antzezlanarekin, eta pixkanaka ezagun egin ziren, telesailetan parte hartzeri iritsi arte.

Emakumearen Nazioarteko Eguneko aldarrikapenekin jarraituz, *AurrezAurre* egitasmoa emakume artisten erakusketa

ere gaur bertan inauguratuko dute Aranburu jauregian. 19:00etan hasiko da ekitaldia, eta Berdintasun Sarien banaketaz gain, mokaduxoa egiteko aukera ere izango dute bertaratuak. Datorren apirilaren 14a bitarte ikusgai izango den erakusketan, honako artisten lanez gozatu ahal izango da: Maider Zunzunegi, Agara Agirre, Idoia Eloseg, Arantxa Munita, Maialen Zabaltza, Oihana Ugarte, Naiara Delgado, Nisa Goiburua, Cristina Zaldivia, Nerea Ugarte, Txitxi, Julia Torrado, Eider Elduaen, Itziar Bastarrika, Amaia Gaztañaga, Helena Cancelo, Maria Cueto, Cristina Gómez, Paula Fleming, Idoia Sánchez, Ester Poveda, Vanessa Alzate, Susana Seguro, Ana Belen Jarrin, Dolo Navas, Tytti Thusberg, Miren Gonzalez eta Miren Atxaga.

Azkenik, ostiraleko jarduerekin amaitzeko, The Back Tracks



*Luminando la noche* ikuskizuneko parrupina. HITZA

taldearen kontzertua izango da Errota tabernan. 2010ean sortutako musika taldea da, eta hasieratik izan dute helburu moduan, soul, blues eta rock musikaren klasikoen bertsioak eskaintzea, era akustikoan. Gorka Azpirozek, Jon Airak eta Sergio Villarrak, Al Green, Bobby Womack, Jimi Hendrix, Stevie Ray Vaughan, Gov't Mule, Frankie Miller, nahiz The Black Crowes bezalakoen kantuak dituzte errepertorioan, eta 2011ko udazkenaz geroztik dabilta inguruko tabernetan kontzertuak eskainiz.

## Askotariko musika, bihar

Biharko jarduerak, Urkizu zuzenaren hasiko dira, 15:30ak inguruan, Emakumearen Nazioarteko Eguneko ospakizunarekin.

17:00etan, Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da Uzturre Asistentzia zentruan. Emanaldiko berrikuntza nagu-

erts-ek moldatutako *Tom Jones in Concert* interpretatuko dute ondoren, eta azkenik, kontzertua amaitzeko, L. Martinez-Manso Ruiz musikariaren *Entre el Galindo y el Cadagua* eskainiko dute.

Haur eta gaztetxoek ere izango dute asteburuan, zer ikusi eta zer entzun. Topic zentroko aretoan, bihar, 18:30ean hasiko da *Luminando la noche* izeneko emanaldia, Del Redoble Teatro y Titeres taldearen eskutik. Txikitari sortzen diren zenbait beldurri aurre egiten irakastea da emanaldiaren helburua, eta horretarako, Juanito, Negra eta Remedios pertsonaiek bidaia batera gonbidatuko dituzte haurrak, gauraren kolore guztiak ezagutzeko; ibilbidean kilkerren iratzartzea, izarren argia, ilargia nahiz Don Saturno ezagutuko dituzte. Antonio Sanchez zuzendariaren, eta Begonia Santalices eta Claudia Verdecchia aktoreen ustez, «gauraren lagun egiten garenean, indartsuago bihurtzen gara gure beldurrak gainditzeko». Horregatik, «funtsezkoa da helduek beldur asmatu-rik ez sortzea».

Musikari eta sortzaile gazteak ezagutzeko aukera ere izango da bihar, 19:00etan, kultur etxean. Eider eta Gorka Zabaleta anai-arrebek kontzertua eskainiko dute. Txikitatik Errenteriako Andra Mari abesbatza ibilitakoak dira, eta interpretatzen dituzten abesti eta hitz guztiak, Gorka Zabaletak berak sortutakoak dira. Anai-arrebek doinuak *a cappella*, gitarra akustikoarekin eta gitarra elektrikoarekin eskaintzen dituzte.

Azkenik, urteroko brasildar festak ez du hutsik egingo Bonberenean.

22:00etan hasita, goizaldera bitarte, Brasilgo doinu eta erritmoak entzun ahal izango dira Mulambo taldearen eskutik, eta campirinha edari brasildarra eskainiko dute.

## Urteroko brasildar festa bihar izango da Bonberenean, Mulamborekin

sia, zuzendaria eta oholtza izango dira. Izan ere, musika bandak lehen aldiz eskainiko du kontzertua Uzturre Asistentzia zentruan, eta Enrike Arostegi bandako zuzendari berriaren lehen kontzertua izango da era berean.

Errepertorioari dagokionez, egoitzako entzuleei ezagunak suertatuko zaizkien doinuak aukeratu ditu Tolosako Musika Bandak; eskualdo doinuak nahiz kanpokoak eskainiko dizkiete. Julio Nuez musikariaren *Honrando a Navarra* pasodoblearekin hasiko dira, eta J. Olivadotiren *South of the Rio* piezarekin jarraituko dute. Hirugarren obra, berriz, J.M. Lacalle konposatutako, eta Nachiro Iwai-k moldatutako *Amapola* izango da. F. Berha-



**TXARTELA+ / TXARTELA 26 - HILEKOA**

- Garaio-titulua estaltzeak:** Hileko 26 txartela (26 urte edo -). Hileko + txartela (26 urte edo +).
- Perfomantzia eta baliabiztasuna:** Eguneroko baliabiztasuna. Garaio-titulua honek egunero bi bidai berrak hartzen ditu, bakoitza noranahi batean eta eskubidea ematen du lineako edozein zerbitzu edozein ordutan erabiltzeko. Bona edukiak ez du bermatzen plaza erreserbatuko denik.
- Txartela hondatu edo galduz gero, jakinarazi erreserba kopia bat egin dezun.** Kopia horien kostua 5,00 eurokoa izango da biderreanentzat. Biderrekin erreserba jakinarazten dionetik bartei berrira eskuratu behar duen arte, berrak ordaindu behariko dira egiten diren bidai guztiak, baina amara ordainduta. Bona-bartei berrira eskuratu behar duen arte, berrak ordaindu behar duen arte, berrak ordaindu behar duen arte, berrak ordaindu behar duen arte, berrak ordaindu behar duen arte. Horetarako ageratu biderrekin aurkeztu behariko dira, erreserba egarbitu ditzen.
- Txartela edo garaio-titulua eskuratzeko, bidai postu elektronikoa** ([biderre@burundesa@autobusesleizun.com](mailto:biderre@burundesa@autobusesleizun.com)) dokumentazio hau.
- Duela gutxi ateratako agazki 1.**
- NANaren fotokopia.**
- Web orrian dagoen inprimakia behar bezala bete:** [www.leizurundesa.com](http://www.leizurundesa.com)
- Lehen lueta ordaindu izanaren ziurtagiria** (gainerako hilebeesten bankuak helbideraz bidez kobratuko da).
- Erabiltzeko epea:** hilebeite natural bakoitzeko.

BONUAK	AMARA - DONOSTIA	IZAZARAL - DONOSTIA
TXARTELA 26	140,00 €	90,00 €
TXARTELA+	200,00 €	120,00 €

ORDUTEGIAK	ALTSASU - DONOSTIA	Leizotatik eta inguruetatik
Amara	08:00	08:00
Beasain	08:15	08:15
Izazaral	08:30	08:30
Itsasondo	08:45	08:45
Orozia	09:00	09:00
Unibertsitatea	09:15	09:15
Amara	09:30	09:30
Beasain	09:45	09:45
Izazaral	10:00	10:00
Itsasondo	10:15	10:15
Orozia	10:30	10:30
Unibertsitatea	10:45	10:45
Amara	11:00	11:00

	DONOSTIA - ALTSASU	Leizotatik eta inguruetatik
Amara	08:00	08:00
Beasain	08:15	08:15
Izazaral	08:30	08:30
Itsasondo	08:45	08:45
Orozia	09:00	09:00
Unibertsitatea	09:15	09:15
Amara	09:30	09:30
Beasain	09:45	09:45
Izazaral	10:00	10:00
Itsasondo	10:15	10:15
Orozia	10:30	10:30
Unibertsitatea	10:45	10:45
Amara	11:00	11:00

Alkiza, Larraul eta Asteasu elkartzen dituen ibilaldi lauenak 6.300 metro ditu; oinez, bizikletaz, korrika edo zaldi gainean egiteko proposa da, maldatsua izan arren.

# Baserriaren bilakaera ezagutuz

## Asier Imaz

**A**lkiza, Larraul eta Asteasun euskal baserriaren bilakaera ederki ikusi daiteke. Iragina eta oraina bizi-bizirik daude, eta horretaz jabetzeko, nahikoa da hiru herriak elkartzen dituen 6,2 kilometroko ibilaldia egitea.

Bizikletaz, oinez, korrika, zaldi gainean... edozein modutara egin daitekeen ibilbide laburra, Alkizan hasten da. Udaletxe aurrean jarri eta bi aukera daude: Anoetarako bidea edo Asteasurakoa. Bigarren aukera hartu, eta GI-3630 errepidean beherantz abiatu behar da, malda errazean. Bertako bizilagun baten hitzetan, «kilometro inguru jaitsi, eta gero, ezkerretara».

Errepideko seinaleak 6 kilometro erakusten duenean, Etxaun baserri berritua ikusten da; ezkerretara hartzeko garaia da. Itxura ederreko eraikuntzaren aldamentik zementuzko bide bat hasten da, beherantz. Barrenera iritsi aurretik, muga-mugan, eskuine-

tara hartzeko aukera eskaintzen du bideak. Larraulera iritsi nahi duenak hori hartu beharko du. Erreka izango da hurrengo seinalea, ezkerrean geratzen da, eta garden-gardena doa. Legeak ez balu debekatuko, eskuz arrantzan ibiltzeko bikaina da; beraz, amuarrainak baldin badaude...

Errekari begira aurrera jarraitzen badugu, Egur-olako zubitoxoa ikusiko dugu. Harkaitza eta porlana uztartzen dira bertan, eta autoz zeharkatzeko ez dago arazo handirik. Gurutzatu eta lehen gorako lehen malda puntu honetan hasten da. Erreka eskuin aldean utzita, lehen izerdi tanten garaia da, orain arteko guztia maldan beheakoa izan baita. Ohartzeko hauspoa berotzen duen igoera horietakoa da, baina laburra denez, ez du zailtasun handiegirik. Bizikleta gainean egiteko, ederra!

Pinu mota desberdinak eta harritzen bat edo beste ikusteko aukera dago zati honetan, baso irekia da ordea. Perretxiko zaleek, gibel urdinen bat biltzeko aukera izango lukete agian, baina ziurrenik ez gehiegi.

Kaxka beltzaren kontu jario korapilatsua entzuten da maldaren azken zatian, eta honek sagarondoan edo intxaurrendoen berrit ematen du. Ondorioz, baserriren bat ere ez da urrun izango. Zalantza maldaren amaieran argitzen da: Murgil jartzen du egurrezko geziak atzera begiratuz. Ibilbidea jarraitzeko, Larraul jartzen duen bidea hartu behar da,



Larraulgo herrigunea, urrunean, aldiz, Asteasuko Elizmendi auzoa ikusten da. A. IMAZ

eta metro gutxira, etxebizitza moduko batzuk ikusten dira. Gerturatzean, baserri berezi bat dela jabetzen zara: Larrola. Egurrezko ate ederrak, beraien eguzki-lore eta guzti: ikusgarria.

### Azken zatia, beherantz

Mendi bideari porlanezko errepi-deak ematen dio erreleboa Larrola atarian. Urrats gutxi batzuk aurrera egitean, Larraulgo eliza ikusten da jaun eta jabe.

Larraulen baserri zaharrak, berriak eta etxebizitza garaikideak uztartzen dira. Plazara iristean, herri ostalua eta museoa, komun publikoak, frontoia... daude. Atsedean hartzeko ez da leku txarra, paisaia ederra ikusten baita bertatik, eta tartean, Asteasuko Elizmendiko eliza erraldoia.

### Larraulgo informazioa

Larrauli buruzko informazioa nahi duenak, udaletxe aurreko iturriaren ondoan dauka panel informatiboa. Besteak beste, herriari buruzko lehen aipamen idatzia 1375ekoa dela jartzen du berri-kan.

Ibilbidearekin aurrera jarraituz, Asteasura errepidetik jaitsi daiteke, Zilar kaletik sartuz eta Kale Berria zeharkatuz, autobus geltokira iristeko. Hemendik Villabona-Zizurkilera joan daiteke autobusez, bertan tren hartu eta itzulerako bideari egina dago. Autobusa hartu aurretik, ordea, Asteasu ezagutzea ezinbestekoa da, bere auzo eta guzti.



Egur-olako zubitoxoa zeharkatu behar da. A. IMAZ



Alkiza, Larraul eta Asteasu lotzen dituen ibilbidearen planoak. HITZA


PATXI JAGOBA AZPIROTZ MANTEROLA



## DATUAK

- **Luzera.** 6.300 metro.
- **Ezaugarriak.** Joana.
- **Hurbilketa.** Renfe trenean Tolosara eta gero autobusean.
- **Hasiere-bukaera.** Alkizako autobus geltokitik Asteasuko autobus geltokira, Larraul igarota.
- **Zailtasun maila.** Orokorrean malda errazak dira, nahiz eta luzeak izan. Pare bat malda piko.
- **Azalpenak.** Hiru herriak elkartuz egin daitekeen ibilaldi lauenak.
- **Interesguneak.** Alkizako eliza, udaletxea eta Mendietxea oinetxea; Larraulgo eliza eta herri museoa eta Asteasuko udaletxea eta eliza.

## PATXINE JATETXEA



Gure berezitasuna  
Euskal sukaldaritza  
eta etxeko postreak

Tel.: 943 69 10 25 • Errementari kalea, 1 • ASTEASU



# Herrira mugimenduak ekimen irekia eta parte hartzailea izan nahi du

Talde berria aurkeztu dute Tolosan; herritarrek sortu dute eta «bilgune zabala» izan nahi du

**Eneritz Maiz** Tolosa

Herrira mugimendua aurkeztu berri dute Tolosako kultur etxean. Egoitz Luisa anoetarrak eta Nagore Garcia ekimeneko kideek sorrera, helburu eta asmoak azaldu zituzten.

«Herritarrek sortzen duten mugimendu bat da, eta herritarren konpromisotik garatu eta mamituko da». Bilgune zabala izan nahi du, «irekia eta parte hartzailea». Herrira irekita dagoela, eta ekarpenak jasotzeko prest daudela adierazi zuten: «Guztion lanarekin lortuko dugu euskal preso eta iheslariak etxera ekartzea». Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko defentsan euskal jendartea aktibatzen helburuarekin, iazko apirillean Egin Dezagun Bidea ekimena jarri zen martxan. Filosofia bererarekin, Herriratik bide bat jorratzen hasiko dira.

Gogora ekarri zuten urteetan, hau da, euskal preso eta iheslariak dauden momentutik beraien eskubideen aldeko «lan emankor eta oparoa» beti egon dela Euskal Herrian. Urte guzti horietan, «norbanako, elkarte edo mugimenduek» egin dute lan. Herrira ekimena lan hori ordezkatzera ez datorrela nabarmendu zuten. Azken bi urteetan, aukera berriak ireki dira, eta egoera politikoak ekarri duen testuinguru berrian sortu da mugimendua.



Pertsona asko elkartu zen aurkezpenean, asteazkenean. E. MAIZ

«Herritarrek sortzen duten mugimendu bat da, eta herritarren konpromisotik garatu eta mamituko da». Bilgune zabala izan nahi du, «irekia eta parte hartzailea». Herrira irekita dagoela, eta ekarpenak jasotzeko prest daudela adierazi zuten: «Guztion lanarekin lortuko dugu euskal preso eta iheslariak etxera ekartzea». Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko defentsan euskal jendartea aktibatzen helburuarekin, iazko apirillean Egin Dezagun Bidea ekimena jarri zen martxan. Filosofia bererarekin, Herriratik bide bat jorratzen hasiko dira.

## 22 preso eta iheslariak

Bideo emanaldi batean jaso zuten eskualdeko egoera. Iheslariak gain, hogeita bi preso ditu Tolosaldeak. Kopurua ikusita Herrira ekimenak eskualdean berebiziko garrantzia hartzen duela eta egin beharreko lanak nabarmendu zituzten. Peio Odriozolaren kasua aipatu zuten, «garrantzi handia du bera bizitzen ari den egoerak, eta salbuespen egoera horiekin amaitu egin behar dugu», esan zuten.

Horretarako, gero eta jende gehiago biltzea beharrezkoa dela zioten, eta «gero eta herri gehi-

gotan ari gara egiten, baina azken ostiralak indartu behar ditugu». Eskualdean hainbat bilgune sortu dira, eta gehiagotara iristea dute helburu.

## Ibarran eta Zizurkilen

Bihar, 11:00etan, Zizurkilgo Herrira mugimenduaren aurkezpena egingo dute, Zizurkil Goran. Asteartean, berriz, hilak 13, 19:00etan Ibarrako Herrira mugimenduaren aurkezpena burutuko da, kultur etxean.

Eskualdeko herri edo norbanakoren batek ekimeneko kideekin harremanetan jarri nahiko balu, [herrira\\_tolosaldea@hotmail.com](mailto:herrira_tolosaldea@hotmail.com) helbide elektronikora idaztea nahikoa izango du. Bukatzeko, maiatzaren 19an egingo den Goazen Plazara ekimena prestatzen eta indartzen hasi behar dela nabarmendu zuten, «plaza guztiak jendez bete behar ditugu».

# Manu Azkarateren egoera aztertzeko batzarra, asteartean

Paueko epaitegitik pasa beharko du Azkaratek asteartean; 20:00etan Trianguloa plazan elkartuko dira

**E. Maiz**

Manu Azkarate tolosarraren egoerari buruzko batzar informatiboa egingo dute, asteartean, 20:00etan, Trianguloa plazan. Asteazkenean egin bezala, bere egoeraren berri emateko baliatuko dute.

Trianguloan ehun pertsona inguru elkartu ziren. Bere aldetik, ezker abertzaleak, Azkarateren atxiloteta salatu zuten. «Garai politiko berri hauetan horrelako jarrerak soberan daude», gaineratu zuten.

Batzarraren ondoren jakin zutenenez, atxilotuta ordu batzuk egon ostean, Paun aske utzi zuten, eta iluntzean Ziburuko bere

etxera iritsi zen. Preso ohia, Espainiaratzea aztertzeko auzia ebatzi bitartean, kontrol judizial pean geratu da aske. 2004az geroztik, bizi da kontrol judizial

Asteartean, hilaren 13an, Paueko epaitegira itzuli beharko du Manu Azkarate tolosarrak. Egun horretan epaileak erabakiko du euroaginduari buruzko epaiketa noiz egingo den.

## Gaixotasun larria du

Manu Azkaratek hesteetako eritasun larri bat du. Sendaezina izaki, 2004ko ekainean kontrol judizial pean aske utzi zuten. Orduan ezarritako baldintzak ez errespetatu izana leporatzen dio orain Espainiako Auzitegi Nazionalak. Lehen aldiz, 1986an kartzelaratu zuten, eta gaixotasun larria dela eta, 1992ko abenduan utzi zuten aske baldintzapean. 2004ean, aske uzteko erabakia baliogabetu zioten tolosarrari, eta preso sartu zuten berriro.



Ehun pertsona inguru elkartu ziren asteazkenean, Trianguloan. I.G.L

## Irudia Tolosa



# URREZKO Q ZIURTAGIRIA, PANELFISARI

Tolosako Panelfisa enpresak atzo urrezko Q ziurtagiria jaso zuen. Bi urteko lana eta jarraipenaren ostean, Ford enpresak eman dio. Auto eta etxetresnontzako torlojuak egiten dituzte. Panelfisa enpresarentzat garrantzi handia duen kalitateko ziurtagiria da, eta «izen handikoa eta zorrotza den

ziurtagiria da lortu duguna», azpimarratu du Sator Ormazabal enpresako kudeatzaileak. Txosten guztiak Ameriketako Estatu Batuetan aztertu dituzte, eta puntuazio onari esker lortu dute. Lana bikoiztu egingo du enpresak, hornitzaile gehiagorengana iritsi beharko baitute. E. MAIZ

# Pilota partidak etxetik gertu ikusteko aukera

**Erredakzioa**

Eskualdeko frontoiak partidaz gainezka egongo dira gaur eta bihar. Eskualdeko pilota elkartek lehia ugari jokatuko dituzte, eta ikusleak ere asetzeko adina norgehiagoka edukiko ditu aurrera, eta etxetik gertu.

Ostiralean, 18:00etan, Anoeta-ko Alkartasun Su-Berri eta Intxurreko pilotariak jokatuko dute. Alegian, pilota jaialdia 19:00etan hasiko da. Intxurreko hiru partida jokatuko dituzte bertan. Ordu berean, Aurrera Saiazekoak Bidegoianen ariko dira, bi lehiatan. Ostiraleko azken

partida Tolosako Beotibarren jokatuko dute eskualdekoek, kasu honetan, Aurrera Saiazekoek, 20:30etik aurrera.

Larunbatean, 10:00etan zabalduko dizkie pilotariei atea Beotibarrek. Beotibar 2 taldeak Gazteleku 1en aurka jokatuko du. 11:00etatik aurrera, Ikaztegiako frontoian bi partida jokatuko dituzte Intxurrekoek. Tolosako Beotibarren, 15:30ean, Aniztasunako pilotariak jokatuko dute. Zizurkilen 16:00etan egongo da pilota ikusteko aukera, eta azkenik, Altzon itxiko da larunbateko jardunaldia, 16:30ean, Intxurre eta Zubietaren artekoarekin.

# Villabonan ere atez atekoa onartu dute

Hiri hondakinen sistemari baietz esan dion Tolosaldeko bigarren herria da, Zizurkilan atzetik

**Iñigo Terradillos** Amasa-Villabona

Bilduren 9 zinegotzien aldeko bozkekin, eta EAJren hiru eta PSE-EEren zinegotzi bakarraren aurkako bozkekin onartu da hondakinen atez ateko bilketa sistema ezartzea Amasa-Villabonan. Modu honetan, sistema hau babesten eskualdeko bigarren herria izango da, Zizurkilan ondoren.

Herenegun eguniko osoko bilkuran onartutakoaren arabera, Villabonako Udalak «ahalik eta gehien birziklatze aldera», emaitza onenak lortzen dituen hiri hondakinen bilketaren alde egiteko konpromisoa hartu du. Udalaren esanetan, «%80ko birziklatze maila lortzen ari den sistema bakarra atez ateko bilketa da», beraz, sistema honen aldeko apustua egin du. Era berean, udalak ahalik eta hondakin gutxien sortzeko azterketa abiatuko du, eta konpostatze kanpaina zabala egin asmo du herriko familien ar-



Bilduko zinegotziak atez atekoari aldeko bozka ematen, herenegun eguniko osoko bilkuran. IT.

tean. Hori gutzitia jorratu eta burutu ahal izateko, lan batzorde bat ere osatuko du. Tolosaldeko Mankomunitatearekin batera gauzatu ditu ekimen horiek. Urrats horiek guztiak «Villabona zero zabor lurraldea bihurtzea» izango dute helburu.

**«Egun duguna ahitua dago»**  
Villabonako Udalaren ustez, «arazo bat dugu hondakinen kudeaketarekin». Izan ere, hondakinen birziklapenean «urratsak»

eman diren arren, egungo sistema «ahitua» dago. «Gaur egungo birziklatze maila ez da %30era iristen, eta hondakinen %70 baino gehiago zabortegetara botatzen ari gara». Halaber, organikoak ez dela modu bereizituan biltzen, eta ondorioz, «balio handia» duten eta «dehengai» diren hondakinak «zabor kutsatzaile» bihurtzen ari garena gehitzen du Udalak.

«Araozari muinetik» heldu nahi dio Villabonako Udalak,

hondakinen «murrizketari, berrierabiltzeari eta birziklatzeari ekinez». «Villabonan gauzak ongi egiten dakigulako, zero zabor politikarantz abiatuko gara, pausotxiki batekin emaitza ezin hobekoa lortuz».

**EAJ eta PSE-EEren erantzuna**

Hondakinen gaiaren inguruan duten desadostasuna agertu zuten hereneguneko bilkuran EAJ eta PSE-EE alderdiek. Bilduk hondakinen gaiarekin dituen hel-

buruekin «ia bat» dator EAJ, baino ez «hori ezartzeko moduekin». Hala, gaia dagokion batzordean eztabaidatua izatea, batzorde horretan hondakinen sistemaren inguruko beharrezko informazioa izatea eta galdeketa bidetako gaiaren inguruko herri partaidetza sustatzea eskatzen duen mozioa aurkeztu zuen, baina ez zuten onartu.

PSE-EEko zinegotziak, Maria Luisa Arijak atez ateko hondakin bilketa «garestiagoa eta zikinagoa» dela esan zuen. Era berean, Arijari «sinesgaitza» egiten zaio atez atekoarekin birziklatze maila «%30etik %90era» pasatzea.

Galder Azkue Villabonako alkateak, bestalde, oposizioko alderdiei erantzunez, birziklatzeaz eztabaida sortzea «pozgarria» dela esan zuen. Hala, atez ateko sistema martxan dagoen herriak aipatu zituen adibide moduan: «Bertako herritarrek oso gustura daude, gezurra da zaborra aldameneko herrietara eramaten dutela, eta gainera, sistema honek merkeagoa izateko joera erakusten du». Zabor organikoak zirkuitutik ateratzeko «modu bakarra» dela ere baieztatu zuen Azkuek. «Askoz ere gehiago» birziklatu daitekeela, eta hori lortzeko lan egingo dutela berretsi zuen.

## Iturenen ariko dira gaur Leitzandiko bertsolariak

Bardoak Nafarroako taldekako bertso txapelketaren bigarren faseari emango diote hasiera

**I. Terradillos** Leitza

Sei talde sailkatu dira Nafarroako taldekako bertso txapelketaren bigarren faseko eta horiek guztiak aterako dira plazara aste-

buruan. Hiru saio izanen dira gaur eta bihar, Iruñean, Iturenen eta Etxarri Aranazen. Hain zuzen ere, Iturengo gaurko saioan, Leitzako Leitzandiko taldeko bertsolariak ariko dira.

Iruñean hasiko da, gaur, bigarren saioa. Auritz-Iruñeko Bertze Maldikoak eta Lesakako Rimak Exkaxkoak kantatuko dute Iruñazarra ostatuko beheko soilaruan, 19:30ean hasiko den saioan. Auritz-Iruñeko taldea Aimar Karrika, Ainhoa Aranburu eta Os-

kar Sanz de Acedo bertsolariek osatzen dute, eta Lesakakoa Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez eta Eneko Fernandezek.

Egun horretako bigarren saioa Iturenen izanen da, gaur bertan. Iturengo Herriko Etxeko ganbaran bertso afaria egingen dute, 21:00etatik aurrera. Afalostean Oronoz-Malerrekako Erauntsi eta Leitzako Leitzandiko ariko dira. Erauntsiren aldetik Iker Gorosterrazu, Alazne Untxalo eta Amaia Elizagoien bertsolariek

abestuko dute. Leitzandin, berriaz, Migel Mari Elosegi *Luze*, Iñigo Ibarra eta Iñigo Sagastibeltza dira bertsolariak. Afariak eta saioaz gozatu ahalko da 12 euroren truke.

Asteburu honetako azken saioa bihar izanen da, Etxarriko gaztetxean, 22:00etan hasita. Herriko Bilixkorriko eta Barañaingo Beteranoak ariko dira, nor baino nor. Etxekoien taldea Eneko Lazkoz, Joseba Beltza eta Alain Iriartek osatzen dute, eta Betera-

noena Saioa Alkaiza, Mikel Lasarte eta Ander Baianok.

Bardoak 2012ko bigarren fasea martxoaren 17 eta 18an amaituko da, egun horietan jokatu bakoitako bueltako saioak, Leitza, Igantzi eta Barañainen. Horien ostean, hiru talde sailkatuko dira martxoaren 31n Leitzako pilotalekuan egingen den finalerako.

Saioen eta sarren inguruko argibideak [www.bardoak.com](http://www.bardoak.com) webgunean aurkitu ahal dira.

• [leitzaldea@hitza.info](mailto:leitzaldea@hitza.info)

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** L. Lejeune,  
Euskal Herria, 46.  
Telefonoa:  
943 67 32 74.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz,  
M. A. Aralar kalea, 43.  
Telefonoa:  
112.

**BIHAR**

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I.  
Kale Nagusia, 7.  
Telefonoa:  
943 67 06 48.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz,  
M. A.  
Aralar kalea, 43.  
Telefonoa:  
112.

**ETZI**

■ **Ibarra.** L. Lejeune,  
Euskal Herria, 46.  
Telefonoa: 943 67 32 74.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A.  
Aralar kalea, 43.  
Telefonoa: 112.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I.  
Kale Nagusia, 7.  
Telefonoa:  
943 67 06 48.  
■ **Leitza.** Erbiti, O.  
Lizarraga kalea, 7.  
Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-  
enen eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Urte askoan!**

**Julen Zelarain Errasti (Amasa-Villabona).** Igandeko partez urte askoan!  
Animo eta eutsi gogor! Geurea da garaipena! Maite zaituztegu!

**Irudia** Inauterietako Argazki Lehiaketa



**AZKEN  
IRUDIAK**

Gaur bukatuko da Inauterietako Argazki Lehiaketako argazkiak bidaltzeko epea. *thargazkiak@hitza.info* helbidera bidali behar dira. Irudi guztiak *tolosaldea.hitza.info* webgunean dituzue ikusgai. HITZAKO epai-mahaia hiru aukeratuko ditu, eta astearteko, hilak 13, egunkarian argitaratuko dira. Asteartetik ostegunera hiru horietatik politena aukeratu beharko duzu irakurle, eta boko eman 943 65 56 95 telefono zenbakira deituta, edo *thargazkiak@hitza.info* helbidera mezu bat bidalita. Irabazlearen izena hilaren 16ko egunkarian ikusi ahal izango da. HITZA

**TX** HONA HEMEN SARRERA PAREA IRABAZI DUEN HARPIDEDUNAREN IZENA: **sarrerak**

**JOSE MANUEL JAUREGI LARRARTE (ANOETA)**

Martxoak 11, igandea  
12:30ean  
Donostia-ko Euzkadi

**LAGUN ARO GBC  
CAJA LABORAL  
BASKONIA**

**SAN SEBASTIAN  
GIPUZKOAN BASKET**

**hitza**

SARRERAK ESKURATZEKO: HITZAREN TOLOSARTE EGOTZITAKO PAREA